

Gure proiektuaren segmentazioa **adinean** oinarritzen da gehienbat, gure baserria bezero zehatzak dituelako. Bezero gehienek, haurrak dituzten **familia motak** izango dira, familien artean, gurasoak, izeko/osaba, zaintzaileak, amama/aitite, etab. sartzen dira. Haurren txokoan balore ezberdinak esleituko ditugu, adibidez, errespetua, elkar-zaintza...

Haur hauen adin tartea 2-12 urtekoa egokiena dela uste dugu, azken batean planifikatu ditugun ekintzak, haur txikientzat posible ez direlako eta handiagoentzat aspergarriak izango direlako.

Adin perfilean zentratuz, 2-12 urteko haurren ezaugarrietara mugatuko gara: Haurraren txokoan, hurrei egokitutako musika ( radio kasetea) jarriko dugu (Ene kantak, Pirritx eta Porrotx, Txirri Mirri eta Txiribiton...), apaindu txokoa urtaroaren arabera.

Familia mota perfilean zentratuz elementu hauek izango dira garrantzitsuak: Familientzat **espazioa** erakargarriagoa izateko, haientzat erakargarria den musika jarriko dugu (melendi, queen, freddy mercury, elvis presley...).